



## Blusen koloreak berriro

Festa giroan murgilduta dugu egunotan Intxaurrondo Zaharra. Aurtengo berrikuntzei dagokienez, nabarmentzekoa da koadrilak ikusi ahal izango direla festetan, blusa eta guzti. Bestalde, urtero bezala, ez dira faltako San Rafaelen itsuentzako bazkaria, pala txapelketa, Sagardo Eguna...


**A**rtzak Ortzeko elkarteak 50 urtetik gora daramatza Santa Kruz egunean San Rafael itsuen egoitzako laguntzat bazkaria prestatzen. Artzak Ortzeko kide Iñakik esan digunez, "gure elkarteak kirola, gastronomia edo kultura jorrateaz gain, ongizate lana ere izan du helburu sorreratik eta, hori dela eta, aspaldi-

tik eramaten die bazkari gozoa itsuei. Beraientzat oso egun berezia da".

### Koadrilak eta taloak

Urtero berrikuntzaren bat izan ohi da jaietan. Aurtengoa, koadrilak berreskuratu dituzte eta auzoko gazte askok blusak jantziko dituzte ostiral arratsaldeko poteoan eta ondoren-

go afarian. Bestalde, bigarren urtez, auzora bertaraten direnek taloak jan ahal izango dituzte, txistorrarekin edo txokolatearekin. Itziar, Arantxi eta beste auzotar batzuk parkean izango ditugu ostiral eta larunbat arratsaldean taloak egin eta egin.



Amets Arzallus bertsotan ariko da auzoko jaietan.

### Ostirala 12

**17.00** Plastilina tailerra umeentzat. Ginkana bizikletaz, parkean. Futbolin txapelketa, Txiki tabernan

**17.30** Taloak parkean

**18.00** Buruhandiak eta erraldoiak parkean ibiliko dira. Ondoren, txokolate jatea

**18.30** Gazte Asanbladak antolatutako jokoak gazteentzat, parkean: kukaña, arrautz lasterketa...

**19.00** Pala txapelketaren finala, estalitako pilotalekuan

**20.00** Koadrilen poteoa eta ka-

### Egitaraua

lejira, Sastakai txarangarekin

**21.30** Koadrilen afaria, Intxaurrondo kalean

**22.30** Ekintza eta Dezipriandians taldeen kontzertua, Intxaurrondo kalean

**00.30** Zezensuzkoa

**01.30** Helduentzako jokoak

### Larunbata 13

**10.00** Diana

**12.00** Haur danborrada

**16.00** Mus txapelketa, Intxaurrondo kalean

**17.00** Malabare tailerra haurrentzat, parkean.

**17.00** Haur krosa Zubiaurreko zubitik aterako da

**17.30** Taloak parkean.

**17.30** Herri kirolak

**18.30** Sagardo Eguna parkean: buruhandiak eta erraldoiak eta II. Lekuan Lekuko Bertso Tarama

**21.30** Herri afaria, Intxaurrondo kalean

**23.00** Dantzaldia

**00.30** Zezensuzkoa

**01.30** Jokoak helduentzat

### Igandea 14

**11.00** Meza

**13.00** Kalejira eta poteoa

**13.30** Artzak Ortzeko elkarte-koek bazkaria prestatuko diete San Rafael itsuen egoitzako lagunei

**14.00** Aitona-amonentzako bazkaria eta dantzaldia ondoren, parkean

**14.30** Zikiro jatea, Intxaurrondo kalean. Ondoren, jolasak

**19.00** Intxaurrondo Zaharreko Bizilagunen Elkarteak, sinbolikoki, trenbidea estaliko du


**19.30** Sardina jatea

### KONPONKETA ETA OSAGARRIAK


**BIGARREN ESKUKO  
BIZIKLETEN SALEROSKETA**

**Madril hiribidea 24**

Tel.: 943 470 001  
656 701 024



### SOINU-ALAI



**ESKOLA**

- Akordeoi kromatikoa
  - Langoari musikala (solfeoa)
  - Trikitixa (solfeoa jakin ala jakin gabe)
  - Pandereta • Musika tailerra
- 5 URTEKIGORAKOENTZAT**

[www.soinu-alai.es.vg](http://www.soinu-alai.es.vg)

Madril hiribidea 24 • Tel.: 943 47.00.01 • Mugi.: 656 70 10 24